

## **E28 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA OÑATIKO UDALA**

### **EKAINAK 28, LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

52 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Erretereriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonak eta kolektiboak Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitzak gogor astindu zituenetik. Informazio eta datu askoren arabera badakigu jada konfinamenduak LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-maila handiagoak ekarri dituela; haien eskubideak bermatu beharrean, urratuak izan dira, zaurgarritasun bereziko testuinguru batean.

Albaina, pandemiak ere agerian utzi du kolektiboen eta ekintzaileen urteetako borroka neketsuari esker lortu diren eskubideak hauskorrak direla, eta oso erraza dela horiek galtzea eta atzera egitea. Argi daukagu sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako diskurtso eta planteamenduak ugaritu egin direla, eta ezin dugula arreata galdu. Erasoen gorakadaren adibide argia da duela egun gutxi Basaurin gertatu den eraso homofoboa.

Orain, osasun-krisitik ateratzen ari garen honetan, "Normaltasun" desiragarria itzultzeko diskurtsoak nagusitzen ari dira. Normaltasun horrek mendekotasun-egoeran daudenentzat, marjinetan bizi direnentzat... baztertuta bizitzen jarraitzea esan nahi du, beren eskubideez gozatu gabe edo dituztenak galduta. Horregatik, oraindik ere beharrezkoa da LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko borroka ikusarazten jarraitzea.

Urtero bezala, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi du. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan

islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak

Horregatik, Udal honek hartutako konpromisoarekin jarraitzen du honako hau egiteko:

- 1) Giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu, baita aniztasun sexualaren, genero identitatearen eta orientazio sexualaren arabera jendea ez diskriminatzearekin ere. Egin diren aurrerapausoak aitortzeaz gain, berresten dugu egun oraindik dauden barrerak gainditzeko gure erabakia.
- 2) LGTBI pertsonen egoeraren diagnostikoa egitea, eta honi erantzungo dion talka-plan bat bultzatzea, premiazkoenak diren ekintzak lehenetsiz.
- 3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.
- 4) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea.
- 5) Jazarpen eta eraso LGTBI fobikoei erantzuteko eta arreta emateko protokoloak bultzatzea hainbat eremutan: Hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa.
- 6) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzeta-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
- 7) Oñatiko Berdintasunerako II. Planean aurreikusten den bezala, ikuspegi feminista duten prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- 8) Edozein motatako eraso gaitzesten dugu gure udalerrietan; indarkeria fisikoa edota hitzekoa, umiliazioa edota LGTBI pertsonen gutxiespena.

Guzti horregatik, herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten



Dirkora Cu

